

Azkue jaunak egindako lan oferi oartxo batzuek ipintzen dizkio. *Euskera*'n argitaratuko da lan au.

II.—Azkue jaunak beste lan bat irakurri digu : *Acento tónico vasco*.

III.—Iztegi beñiaren lan eta azterketetan luzaro jardun degu.

IV.—Gure *Euskera*'ren lenbiziko datoñen zenbakian, Urgazleen izen-zerenda jariko da ta baita nun bizi diran ere.

V.—Poz aundiz Euskaltzaindiak entzun du, Gabel jaunak igortzen dion eskutitza. Euskaltzaindiak beste eskutitz bat egin zion bere *Ortografía vasca*'ren erantzunpidez ta oni erantzun dio Gabelek oraingo beretaz.

VI.—Mr. Veirin jaunak eskerak agertzen dizkigu Webster jaunaren oroipenerako 200 franko biali ditugulako.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da bazafaldi au.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean. 1930'ko Ofiaren 26'an.

Batzar ontan euskaltzain abek bildu dira : Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Altube, Lakonbe ta urgazletatik Ormaetxea jauna. Otoitzez asi da.

I.—Lakonbe jaunak lan bat irakurri digu : euskal-izen batzuek erderazko *escorpión* adierazteko, Bonaparte jaunaren idazkietan idoroak. Bi itz ez ezik, besteak Azkue jaunaren iztegian daude.

II.—Azkue, Urkijo ta Lakonbe Schuchardt-erirako zetozen lanak aztertzeke izendatu ziran, ondoren epaia emateko. Bi lan bakarrik azaldu dira batzaldi

ontan. Biak aztertu ondoren, epaile jaunak erabaki dute : *Ekin eta yafai* ikuritzat dakaren lana saristatzea. Alemaneraz idatzia dago. Saristatutako lanaren egilea, gure urgazle Gerhard Bähr jauna da. Schuchardt-saria urterokoa da ta ofegatik Euskaltzaindiak beste urte bateko batzaldia bertatik iragañi nai du. Batsaldi ofen epea datozen 1931'garen urteko Orilaren 31'garen eguna izango da. Sari-gaia auxe aukeratu da : *Estudio crítico acerca del teatro vasco, excepto las pastorales de Zuberoa*.

Saria 500 pesetakoa da ta batzaldi ontako lanak euskeraz idatziak izan bear dute. Zuzendu bitez Euskaltzaindiaren etxera, Ribera, 5, Bilbao.

Euskaltzaindiak ez du bere gain artzen Bähr jaunaren idazti edefaren argitarapena. Alaz ere, Bähr jaunari eskatu bear zaio : bere lana alemaneratik gaztelerara itzuli dezala, gure *Eusker*a'n argitaratu dedin.

III.—Euskaltzaindiak, Jose Azkue aita prantziskotararen euskal-idaztiak ongi deritzazkiolako, bere urgazle aukeratu du.

IV.—Euskaltzaindiari eskerak dagizkio Aita Iraizozek aurfeko batzaldi baten urgazle izendatu duelako.

Ta beste gai batzuek bigaramonerako lagarik, otoitzez amaitu da batzaraldi au.

Bilbo'n, Euskaltzaindiaren etxean 1930'ko Orilaren 27'an.

Batzaraldian euskaltzain jaun abek bildu dira : Azkue maipuru, Urkijo, Eguskitza, Olabide, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai ta urgazletatik Ormaetxea, jauna. Otoitz eginda.